

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

#### Jendaurrean jartzea “Sobrongo zundaketaren hornidura hoditeria berritzeko proiektua eguneratzeko proiektua”

Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzako Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak sustatzen du “Sobrongo zundaketaren hornidura hoditeria berritzeko proiektuaren eguneratzea”.

Sobron I-eko zundaketa Lantarón udalerrriaren mendebaldean dago, eta hari esker Sobron, Bergonda, Fontecha eta Larrazubiko herriguneak hornitzen ziren. Hala ere, gaur egun, gune horietarako hornidurak kalitate eta kantitate arazoak ditu, ez dagoelako edateko ura arazteko estaziorik, eta sarea egoera txarrean dagoelako eta maiz apurtzen delako.

Hain zuzen, gaur egun, eroanbide hori zerbitzuz kanpo dago, eta horrek hornidura baliabide alternatiboak erabiltzera behartzen du. Haietako batzuk, hala nola Larrazubi eta Fontecha hornitzeko Montecilloko zundaketa, ez dira nahikoak izaten agorraldian, eta zisterna kamioien bidez osatu behar izaten da hornidura.

Proiektu honek barnean hartzen du 3.069 metro luze den ur gordinaren eroanbide hori berritzea, zundaketako harguneko obratik Sobrongo egungo biltegiaren ingururaino.

Proiektu honetan definitutako eroanbidea Sobrongo La Playa auzotik Larrazubi-Fontechako biltegi berrira artean dagoeneko eginda dagoen tarteari lotuko zaio.

Lan eremua Lantarongo udalerriko lurretan dago. Eroanbidea zangan egingo da, A-2122 errepidearekiko paraleloan eta urtegiaren ertzetik ahalik eta urrutien. Ezponda desmuntatuko da espazioa lortzeko beharrezkoa den lekuetan, 0+360,00 eta 0+482,29 KPen artean izan ezik. Tarte horretan trazadura errepidearen beste aldera igaroko da, urtegiaren ondora, inguru horretan dauden espezie bereziei, alegia, haritz kandudunari eta Osmunda Regalis iratzeari kalterik ez egiteko.

0+592,39 eta 0+708,60 KPen artean obra berezi bat aurreikusi da eroanbidea A-2122 errepideko zubiari ainguratuta jartzeko, burdinurto nodularrezko hoditeria blokeoduna erabiliz.

Zubia igaro ondoren, presatik gertu, bi puntu berezi daude —Iberdrolaren instalazioetatik gertu daudelako dira bereziak—:

1+345,29 KPan, aurreikusitako eroanbideak lurpeko linea elektrikoa gurutzatzen du.

1+381,07 eta 1+391,21 KPen artean, proiektatutako eroanbideak zentrala elikatze galeria gainetik zeharkatzen du.

Bestalde, aurreikusi da eroanbideak presa blokea zeharkatzea, errepidearen lur erauzketatik hurbilen dagoen muturretik. Presa blokearen zeharkatze hori 1+401,5 KParen eta 1+410,01 KParen artean egingo da.

Tarte horretarako, 500 mm-ko pvc-o hodi bat hautatu da, eta in situ egindako hormigoizko kaxa batek babestuta egongo da.

Proiektatutako trazadurak ez die eragiten presaren auskultazio puntuei.

Presaren gorputzetik ibaian behera berehala, aurreikusi da eroanbideak errepidea iparraldetik hegoaldera zeharkatzea, 1+410,01 KParen eta 1+426,96 KParen artean.

Errepidetik presaren oinera jaisteko (1+426,96 KPtik 1+448,08 KPra) 500 mm-ko burdinurtu nodularrezko hoditeria blokeoduna aukeratu da. Ezpondari ahalik eta kalterik gutxien eragiteko, eroanbidea airetik joango da, lau ainguraketa gunetan oinarrituta.

Presaren oinetik, eroanbidea Ebro ibaiaren ezkerretik joango da, Presa kaleari jarraituz (errepide zaharra). Tarte horretan, zubi txiki baten paraleloan gurutzatuko du, eta lehendik dagoen bidetik jarraituko du, berriz ere errepidera hurbildu arte, 2+100 KP inguruan.

2+382,29 KPan eta 2+479,43 KPan, eroanbidea Ebro ibaiaren ezkerretik joango da, A-2122 errepideari eusten dion harlangaitzezko hormaren oinari atxikita, 500 mm-ko burdinurtuzko hoditeria blokeodunaren bidez, hormigoizko egitura trinko jarraitu batean bermatuta, zeina zimentatuta egongo baita, lehendik dagoen hormari esfortzurik transmititu gabe.

2+479,43 KPan trazadurak ibaiaren ingurua atzean utziko du berriz A-2122 errepidea gurutzatu aurretik.

Behin errepidearen iparraldera iritsita, eroanbideak Sobrongo herrira sartzeko bideari jarraituko dio. Trazadura 3+054,32 KPan amaitzen da, Sobrongo biltegiaren inguruan. Han, Arabako Foru Aldundiak berritutako sarearekin lotzeko kutxatila bat jarriko da, eta, horrela, Sobrongo zundaketatik Bergonda, Fontecha, Larrazubi eta Sobrongo herriguneetara berriz hornidura ezarri ahal izango da.

Errepideak zeharkatuko diren gunetarako, aurreikusi da 500 mm-ko pvc-o hodia hormigoizko kaxa batean sartuta jartzea, material pikortatuz babestuta.

Proiektuak ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak arautzen duen ingurumen inpaktuaren ebaluazio arruntaren prozedura izan behar du. Ingurumen inpaktuaren ebaluazio arruntari buruz ebazteko eskumena duen organoa Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Hirigintza Saila da.

Sustatzaileak ingurumen inpaktuaren azterketa egin du, eta eskatzen du ingurumen inpaktuaren ebaluazioaren prozedurari jarraipena ematea. Hortaz, aipatutako proiektuak jendaurrean jartzeko eta eraginpeko administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egiteko izapidea igaro behar du, Ingurumen Ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen 36. artikulua ezarritako eran. Beraz, honako hau

#### EBAZTEN DUT

Jendaurrean jartzea "Sobrongo zundaketaren hornidura hoditeria berritzeko proiektua eguneratzeko proiektua" eta haren ingurumen inpaktuaren azterketa.

Agiriak eskuragarri egongo dira aztertzeko, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren bulegoetan (Probintzia plaza 4, 2. eskuina), eta Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuaren bulegoetan (Probintzia plaza 4, 3. ezkerrean), Vitoria-Gasteizen; bai eta Arabako Foru Aldundiaren web orrian ere ([www.araba.eus](http://www.araba.eus); bide izen honetan: Ingurumena/Ingurumen Ebaluazioa/Ingurumen ebaluazioak/Sartu "23-56" bilatzailean).

Pertsona juridikoek, nortasun juridikorik gabeko entitateek eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan adierazitako beste subjektu batzuek bitarteko elektronikoen bidez jarri behar dute harremanetan administrazio publikoekin, prozedura administratibo bateko edozein izapide gauzatzeko. Horregatik, jendaurrean jartzeko izapide honetan subjektu horietako edozeinek egindako alegazioak nahitaez bide elektronikoz aurkeztu behar dira. Gainerakoek euskarri fisikoan ere egin dezakete, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean (Probintzia plaza 5, 01001 Vitoria-Gasteiz), 30 egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, eta Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzari zuzenduko zaizkio.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 7a

*Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria*  
**NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA**